

NOS MUEVE **DURANGO** BAT EGINIK

Udal-hauteskundeak

2019-2023

Legealdirako programa



MIREIA ELKOROIRIBE ZENIKAONANDIA
DURANGOKO ALKATETZARAKO HAUTAGAIA



EMAN BOTOA / VOTA



eaj
pnv

AURKIBIDEA

1. Prozesu baten emaitza	4
2. Gure aktiboak	6
3. Durango ABIAN!	10
hAzi	12
Blzi	13
izAN	14
4. Gure konpromisoak	16
Durango aitzindari Durangaldean, Bizkaian eta Euskadin!	17
Durango 2030, etorkizuneko gure proiektua	17
Durango, bizileku ezin hobea	18
Durango gaur eta bihar	18
Durango oinez eta bizikletaz	19
Durango, bisitatzeko moduko hiria	20
Durango eta Durangoko alde zaharra	20
Durango guztiontzat	22
Durango, harro egoteko modukoa	21
Durango, etorkizuna elkarrekin diseinatzen	22
5. Durango ABIAN! Honako hauentzat ere... ..	24
lanpostu-bila ari direnentzat	25
gazteentzat	25
degaitasuna dutenentzat	26
adinekoentzat	26
elkarteentzat	27
ekintzaileentzat	27
merkatarientzat	28
berdintasunerako	28
bizimodu aktiboa eta osasungarria izateko	29
gobernu irekirako	29
6. Durangoren zerbitzura dagoen taldea	30

h 2 0 3 0
A B I A N !
z i z D U R
i z a A N G
i n O !



EMAN BOTOA / VOTA



f mireia.elkoroiribe
@mireiaelkoroiribe
in mireia-elkoroiribe
EAJ-PNV.EUS



› 1 Prozesu baten emaitza

Esku artean duzun hau hilabete askotako lanaren emaitza da: hamaika bilera, hausnarketa, eztabaida, ideia-elkartruke, topaketa, mezu elektronikoa, dei, whatsapp mezu, elkarrizketa, gutun, proposamen, erantzun...; hainbat et hainbat dokumentu partekaturen emaitza. Eta, batez ere, ilusio handiko hilabete askoren emaitza.

Ilusioa, DURANGO HELBURU prozesuan konprometitutako 120 lagunen ilusioa. Ilusioa, Durangoko elkarte eta erakundeekin izan ditudan ia ehun bileretan transmititu didazuen ilusioa. Ilusioa, ostiraletan auzoetan nigan hurbildu zaretenean, edo beste edozein egunetan, paseoan ari nintzen bitartean, edo zuen dendetara joaten nintzenean... agertu izan didazuen ilusioa. Eta ilusio berezia, halaber, zuek eragin didazue zuen denboraren zati bat hartu duzuelako Durangori buruz pentsatzeko, nire gutunari erantzunez, zuen nahiak esku onetan egongo diren uste osoan.

Gauza bat aitortu behar dizuet: durangar askok zuengandik apur bat eman didazuela sentitzen dut, zuen denboraren zati bat eman didazuela azken hilabeteotan. Zuen nahiak oparitu dizkidazue, 2030. urteko zuen Durango. Nigan, guregan, EAJ-PNV alderdian jarri duzue zuen konfiantza; zuen nahiak nahi horiek hobekien gauzatu ditzakeenaren esku geratu denaren konfiantza.

Niretzat ohore handia da proiektu honen buru izatea, proiektu honek EAJ-PNVren esperientzia eta berme guztia eta lantalderik onenaren indar berrituak eskaintzen baitizkio Durangori. Durango moderno, solidario eta dinamiko hau durangarren, erakundeen, elkarten eta enpresen baterako lanari esker lortu dugu, eta argi geratu da esfortzua eta lankidetzaren zein garrantzitsuak diren. Eta lan hori guztia erakundeetan EAJ-PNVren lidergopean egin dugu, pertsona konprometituekin eta gure herria gaur egun dugun bizi-kalitatearen mailaraino eramateko gai izan diren pertsonekin. Erreleboa hartu genuen, martxan gindoazela. Ondare horri eutsi eta hobetzeko betebeharra eta konpromisoa hartu dugu. Horrela, bada, dokumentu hau, hilabete hauetako lanaren emaitza izateaz gain, konpromisoa ere bada jada, nik eta alderdiak zuekin guztiokin, Durango 2030 hobe lortu nahi duzun durangar guztiekin egiten dugun kontratua.

Gogotik eragingo diegu pedalei hori lortzeko. Gogotik eta sendo. Eta zurekin kontatzen dugu horretarako!

MIREIA ELKOROIRIBE ZENIKAONANDIA

DURANGOKO ALKATETZARAKO HAUTAGAIA



› 2

Gure aktiboak

› 2 Gure aktiboak

Durango herri ezin hobea da bizitzeko, hainbat udal-inkestaren arabera. EAJ-PNVk Durangoko Udalean egin duen kudeaketa-lanari esker, indargune oso garrantzitsuak dituen herria izatea lortu dugu eta indargune horiek orainaldiaren gakoa dira, baina etorkizunerantz, Durango 2030erantz, aurrera egiteko bidean bultzada emango digun palanka ere izan behar dute.

Pertsonak

- Durango hemen bizi garen eta lan egiten dugun pertsonok (29.295) osatzen dugu. 15.109 emakume eta 14.186 gizon bizi gara Durangon, gure bizimodua partekatzen dugun herrian, betiere aniztasunetik. Geure artean, % 7,55 atzerrian jaioetakoak gara eta 1.433 durangarrok desgaitasunen bat dugu onartuta, aniztasun edo dibertsitate horren bi adibide ematearren.
- Azken hamarkadan, gure biztanleriak gora egin du apur bat (% 6,37). Belaunaldien arteko oreka egokia dugu, eta biztanleria gaztea dela esan dezakegu. Durangarren % 18,54k 65 urte edo gehiago dituzte, eta % 20,04k 20 urte baino gutxiago.
- Durangoko herritarrek prestakuntza ona dute, 4tik 3k badakite euskaraz eta % 61ek lehen mailako ikasketak baino maila handiagoak dituzte.

Jarduera

- Durango eskualdeko erreferentzia da merkataritzan eta zerbitzuetan; bi sektore horietan metatzen da jarduera ekonomikoaren % 76,31. Durangon askotariko zerbitzuak ditugu Durangalde osorako: gizarte-zerbitzuak, osasun-arlokoak, hezkuntzakoak eta aisialdiko zerbitzuak, baita erakunde publikoen hainbat administrazio-egoitza ere.
- Durangar gehienek gure herritik kanpo egiten dute beharra, batik bat, Durangaldean, eta jardueran industria da nagusi (% 40,59), automozioaren sektoreak garrantzi berezia izanik.
- 2018. urtearen amaieran, Durangoko langabezia-tasa % 10etik behera zegoen, eta LANBIDEn 1.448 durangar zeuden enplegu-eskatzailatzat erregistratuta.
- Durangarren errenta erabilgarria gure inguruko batezbestekoa baino handiagoa da (% 6tik % 9ra bitarte), baina 2019ko otsailean, 65 urtetik beherako 414 durangarrek kobratzen zuten Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta.
- 573 enpresa eta 1.150 autonomo dira Durangoko jarduera ekonomikoaren eragile eta, erregistratuta dauden 292 elkarteekin batera, herriko kirolaren, kulturaren, gizartearen arloko bizitza eta bizitza ekonomikoa dinamizatzeko aktiborik onena osatzen dute.

Testuingurua

- Durango hiri lagunkoia da adinekoekin, eta 2014. urteaz geroztik Osasunaren Mundu Erakundearen Adinekoekin Lagunkoiak diren Hiri eta Komunitateen Mundu Sarean sartuta dago.



- Durango udalerri segurua da, delinkuentzia-indizea milako 24,89 izanik, EAEko eta Europako batezbestekotik oso behera.
- Durangok konektibitate oso ona du eskualdean eta lurraldeartean, eta Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuen arteko puntu neuralgikoa da.
- Gure hiri-dentsitatea handia izaki, eta tren eta autobus bidezko garraio publikoaren konexioak onak ditugunez, EAEko gainerako herritarrek baino gutxiago erabiltzen dugu dagoeneko ibilgailua (0,55 ibilgailu biztanle bakoitzeko).



› 3 Durango ABIAN!

› 3 Durango **ABIAN!**

Proiektzio kolektibo bat dugu abiapuntu, parte hartzeko eta baterako sorkuntzako hainbat formularen bitartez lortutako proiektzioa. Eta proiektzio hori jardun zehatzen bitartez gauzatu behar dugu, egunez egun. Sorkuntza kolektiboko prozesu hori eragile, pertsona, elkarte, denda, enpresa... askoren arteko lana izan da, eta guztien artean administrazioek funtsezko eginkizuna bete behar dute, egiaztatuta baitago gai publikoak bideratzeko modua –hau da, guztiona denaren, partekatzen denaren gobernua– gakoa dela Durangoren garapenerako.

Hortaz, 2030. urteranzko bide horretan, gertakari garrantzitsuenetako bat 2019-2023 aldiko udal-legegintzaldia izango da. DURANGO ABIAN! gida bat da, baterako jardunaren gida datozen urteotarako, eta Durangoko EAJ-PNVk udal-gobernurako egin duen hauteskunde-proposamena egituratzen du. Eta, aldi berean, hau ez da lau urterako hauteskunde-programa bat soilik. Lanerako gida bat ere bada, etorkizunaren oinarriak finkatzeko gida bat, datozen 4 urteotan jardunez Durangok 2030ean izango dituen oinarriak finkatzeko. Programa honetan ekintza eragileak biltzen dira, epe luzera begira.

Entzutea. Adostea. Aurrera egitea. Hiru aditz horiek dira DURANGO ABIAN! proiektuaren aurrekari. 2030erako bidean, Durangoko eragileak HAZI, BIZI eta elkarBIZI, eta IZAN izango dira.





hAzi

Durangoko bizimodua Durangaldearen oparotasunarekin lotuta dago. Durango Durangaldea eskualdeko burua da, industria nagusi den eta Durangoko gizon-emakumeok bizi eta lan egin nahi dugun eskualdeko zerbitzuen, merkataritzaren eta hotelen nukleoa.

Dinamismo sozio-ekonomiko iraunkorrari esker, kalitatezko enpleguaren maila handiagoak lortu nahi ditugu, orain eta etorkizunean. Durangaldeko industria-jardueraren sustapena geure gain hartzen dugu, modu kontziente eta proaktiboan, baita Durangoren sustapena ere, zerbitzueta eta merkataritzako nukleo den aldetik. Durangok eskualde osorako duen dinamismoari eta garrantziari eusteko gakoak dira horiek.

Durango estrategikoki kokatuta dago Bilboren, Donostiaren eta Gasteizen artean, eta kokapen estrategiko hori funtsezko faktore bihurtu behar dugu Durangon aisialdiaren, turismoaren, kulturaren eta merkataritzaren arloetako jarduera berriak eta jarduera ekonomiko berriak erakartzeko eta biltzeko, Euskadin dugun erreferentzialtasuna indartze aldera.

Aurrerabide kementsu horrek pertsona guzti-guztientzako mesedegarri izan behar du, inolako salbuespenik gabe. Prestakuntza-maila handia izateak kalitatezko enplegua izateko aukera handiagoa eragiten duela jakitun, goi-mailako prestakuntza espezializatuari bultzada ematea funtsezkoa izango da, betiere pertsona guztien eskura jarrita, gaur eta bihar Durangon bizi nahi dugunon gizarteratzeko, laneratzeko eta garapen pertsonalerako prozesuetan, laguntza-sare eredugarriarekin.

HAZI garapen pertsonalean, lanbide-kualifikazioan, kalitatezko enpleguan, industria-jardueran, merkataritzaren dinamismoan. HAZI eskualdeburu garen aldetik, eta Bilbo, Donostia eta Gasteiz arteko 0 kilometroa.



Blzi

Durango hemen bizi garen eta lan egiten dugun pertsonok osatzen dugu. Durangok batzen gaitu, gure bizitza Durangon partekatzen dugulako. Eta gure bizitzak aisialdiko, kulturako edo kiroltako jardueretan gurutzatzen dira, elkarbizitzeko eta bat egiteko espazioetan, giza harremanak saretzen diren tokietan.

Durangon elkartzeko dinamismo eredugarria nabari da, haren nortasunaren adierazgarri. Euskarari, kulturari, merkataritzari, kirolari eta elkartasunari lotutako erakundeen ugaritasunak ez du parerik gure inguruetan. Haietako batzuk erreferenteak dira, eta gure eskualdeko mugak gainditzen dituzte. Dinamismo hori zaintzea, antolatzea eta indartzea funtsezkoa da, gizarte modernoetan indibidualizaziorako joera nagusitzen ari den garai honetan.

Lankidetzako eta elkartasunezko sare horiek indartzea, bai betiko durangarrek, bai Durangora berriki etorri garenok herriaren etorkizunarekin identifika gaitezen eta bultzatu dezagun; sareen indartze hori 2030erako bidearen laneko agendan sartu behar da. Zeren Durangoko bizimoduak lagunkoia, atsegina izan behar baitu gazte eta helduentzat, baita belaunaldiartearen ere, eta dela sexuagatik, dela sexu-orientazioagatik, dela jatorri etnikoagatik edo dibertsitate funtzionala duelako desberdina den hori errespetatu behar du. Durangoko bizimoduak bizipen berezia izan behar du, dibertsitatean elkarbizitzeko bizipen berezia.

Bizimodu hori testuinguru batean gertatzen da. Durangoko espazio publikoek testuinguru egoki bat osatu behar dute, Durangon bizi eta lan egiten dugunok eta Durangora inguruetatik edo urrunagotik datozenek esperientzia positibo, partekatu eta konstruktiboak bizi ditzaten. Espazio publikoak oinez edo bizikletaz ibiltzeko, jolasteko gogoia eman behar du, bat egiteko eta atseden hartzeko espazioekin. Espazio horiek zaintzea, espazioei balioa ematea eta espazioen dinamizazioa oso garrantzitsuak dira hiri lagunkoi batean; hiria bizitzeko gonbidapena.

BIZI elkarbizitzea da. BIZI dinamismoa da, gizartearen, kulturaren, kirolaren eta ekonomiaren arloetako dinamismoa. BIZI da Durango guztiontzat lagunkoia, irisgarria eta aukera-berdintasuna eskaintzen duena izatea.





izAN

Durangok erreferente IZATEKO aukera du; ekonomia, jasangarritasuna, segurtasuna eta osasuna ekarriko dituen mugikortasun-eredu baten erreferente.

Gure kokapen estrategikoa –0 kilometroa Bilboren, Donostiaren eta Gasteizen artean–, orografia (laua, gehienbat), garraio publikoaren konexioak eta jendeak txirrindularitzarekiko duen zaletasun handia direla eta, Durango toki ezin hobea da mugikortasun jasangarriarekin lotutako proiektu bat garatzeko, bizikleta elementu nagusi izanik.

Durango mugikortasun berriaren laborategi bihurtzea, etorkizuneko mugikortasunarena, bizikleta sinbolo izango duen mugikortasunarena. Garraibide merke, jasangarri eta osasungarria izaki, garraio publikoarekin uztartuta, eredu garri izan dadin Euskadin eta Europan. Oinez eta bizikletaz ibiltzea, garraio publikoarekiko intermodalitatearekin uztartuta, izango dira etorkizunean alde batetik bestera joateko moduak, lanera, ikastera, erosketak egitera edo aisialdiko joan-etorriak egiteko.

Hainbat etapako bidea da, eta bide horretan, barne-erlaketak egiteaz gain, bidea egiteko funtsezkoak diren eragile eta erakundeekin bat etorri behar dugu. Ikuspegi horrekin, “Mugi zaitez Durangon” mugikortasun jasangarriko plana garatuko dugu, oinez, bizikletaz eta garraio publikoko mugikortasunean oinarritua, eta intermodalitatea sustatuko dugu. Eta garraio publikoan edo udalaz gaudik azpiegiturretan eskumenak dituzten beste erakunde batzuk ere gurekin bat eginaraziko ditugu, hori lortzeko.

Mugikortasun berri horrek aukera berriak, enpresa berriak, zerbitzu berriak ekarriko ditu, eta guk sustatu egin behar ditugu, laguntza eman behar diegu. Horretarako, Mobility Innovation Lab sortuko dugu bizikletarekin eta mugikortasunarekin lotutako proiektu berritzaileak garatzeko, hiri barneko mugikortasun elektrikoa sustatuko dugu gure eskualdeko automozio-industriarako probak egiteko espazio izan dadin eta, hartara, jarduera ekonomikoa, enpresak eta kalitatezko enplegua sortuko ditugu. Horren osagarri, bizikletarekin lotutako jarduera ekonomikoa garatuko da, hala nola ekitaldiak, turismoa eta prestakuntza-jarduerak.

IZAN zera da, ahalegina, osasuna, natura, harrotasuna. IZAN bizikleta da. IZAN zera da, mugikortasun-eredu berri baten erreferente izatea, etorkizuneko mugikortasunarena, jarduera ekonomiko berria, enpresa berriak.



› 4


Gure konpromisoak

› 4 Gure konpromisoak

Durango aitzindari Durangaldean, Bizkaian eta Euskadin!

Ekonomia Indartzeko Zentroa sortuko dugu, eta hark kalitatezko enplegua sortuko du, espiritu ekintzailea sustatuko du eta inbertsio, proiektu eta ekitaldiak erakarriko ditu Durangora. Eguzkitzako lursail industrialean hirigintza-lanak egin daitezzen bultzatuko dugu, enpresa berriak Durangon kokatzearren. **Landako Erakustazoka** sustatuko dugu, eskualdeko eragile sozio-ekonomikoekin etengabe hitz eginez, eta **tokiko merkataritzaren eta ostalaritzaren dinamizazioa** bultzatuko dugu. **Durangoren erakunde- eta eskualde-lidergoa sendotuko dugu**, egungo zerbitzuak eta azpiegiturak indartuz eta Durangalderako inbertsio eta jardun estrategiko berriak erakarrit.

- Lehenetsutako sektoreetan ekonomia indartzeko zentroa: Mugikortasuna, energia, enpresei eskainitako zerbitzuak, hirigintza jasangarria, osasuna eta osasunari aplikatutako teknologiak.
- Eguzkitzako lursail industrialetan hirigintza-lanak egitea.
- Prestakuntza espezializatua eta goi-mailakoa indartzea.
- Landako Erakustazoka sustatzea.
- Merkatu Plaza birgaitzea.
- Merkataritza eta ostalaritza dinamizatzea.



Durango 2030, etorkizuneko gure proiektua

Durango erreferente bihurtu nahi dugu; **ekonomia, jasangarritasuna, segurtasuna eta osasuna** ekarriko dituen mugikortasun-eredu baten erreferente. Bizkaian, Euskadin eta Europan erreferentzia izango den eredua. **Mobility/Bike Innovation Lab** sortuko dugu bizikletaren eta mugikortasunaren inguruan proiektu berritzaileak garatzeko, eta hiriko mugikortasun elektrikoa indartuko dugu. Mugikortasun jasangarriari, bizikletari, txirrindularitzari eta zikloturismoari lotutako **ekitaldiak, turismoa eta ekonomiarekin eta prestakuntzarekin zerikusia duten jarduerak** sustatuko ditugu. Holandako Utrecht hiriaren pareko izaten ahaleginduko gara.


- Mugikortasun jasangarriaren eredua.
- Mobility Innovation Lab.
- Ekitaldiak, turismoa, jarduera ekonomikoa eta prestakuntza-jarduerak sortzea.



Durango, bizileku ezin hobea

Durango segurua, garbia, erakargarria eta irisgarria nahi dugu, **elkartzeko** eta harremanetarako guneekin, **hirigintza orekatu eta jasangarria duena**, eta **udaltzaingoa hurbilekoa izanik**, kalean presentzia handiagoarekin. **Gune publiko berriak** garatuko ditugu eta **Ezkurdi parkearen birgaitzea** bultzatuko dugu, berdegune zabalekin, **erabilera anitzeko gune estali** handi batekin, eta trenbidearen parkearekin eta beste berdegune batzuekin konektatuko dugu, udalerri osoan **sare berde** eredugarri bat bultzatuz.

- Ezkurdi parkea eraberritzea.
- Trenbidearen parke berriarekin konektatzea.
- Sare berdea udalerri osoan.
- Trenbidearen ibilbide zaharra bide berde bihurtzea.
- Hurbileko udaltzaingo-eredua bultzatzea.
- Gure kaleetako garbiketa eta argiak hobetzea.
- Airearen kalitatearen jarraipena eta kontrola egitea erakunde eskudunekin elkarlanean, emisio eta usainen jatorria aztertzea eta ekintza-plan bat horiek kontrolatzeko eta murrizteko. Informazioa argitaratzea.
- Kirol-instalazioen eraginkortasuna hobetzeko azterketa.



Durango gaur eta bihar

Familiei eta euren premiei arreta berezia eskainiko diegu, **haurren eremuak** hobetuz eta **aisiarako gune estaliak** gaituz. **Hargune** bat sortuko dugu txikienentzat, eta **Gaztegune** bat gure gazteentzat. Kirolarekin, kulturarekin eta aisiarekin lotutako **jarduerak** bultzatuko ditugu **adin guztientzat**. Udalerrian **hezkuntza-eskaintza** indartuko dugu, egun dagoen **goi-mailako prestakuntza** babestuz eta prestakuntza-proiektu berriak sustatuz.

- Haurren eremuak hobetzea. San Inazio parkeko jolasgunea birgaitzea, skate parkea (U) eraberritzea eta Landakoko jolasgunea estaltzea.
- Hargunea eta Gaztegunea sortzea, haur eta gazteentzako berariazko aisialdiko programak eskainiko dituzten estalpeko gune berriak.
- Hezkuntza-eskaintza indartzea, prestakuntza espezializatua bereziki bultzatuta.
- Enplegu-feria sustatzea, gazteek aukera izan dezaten prestakuntza-eskaintzen berri izateko eta sor daitezkeen enplegu-eskaintzekin kontaktuan egoteko.
- Gazteentzako etxebizitzaren alokairu sozialeko programak areagotzea.

Durango oinez eta bizikletaz

“Mugi zaitez Durangon” mugikortasun-plan bat egingo dugu. Bidegorri-sarea amaituko dugu, trenbidearen ibilbide zaharra bide berde bihurtuko dugu, bizikletentzako aparkaleku eta erraztasun gehiago gaituko ditugu, eta elkarbizitza bermatzeko prestakuntza eskainiko dugu. Urki-Hegoalde kanpoaldeko eraztuna bukatuko dugu, aparkalekuen plana prestatuko dugu, Trenbide oinezkoentzat bihurtuko dugu, hiri-garraioko sistema bat bultzatuko dugu mugikortasun urritua dutenentzat eta trenarekiko intermodalitatea indartuko dugu.

- “Mugitu zaitez Durangon” mugikortasun jasangarriko plana, oinezko eta bizikleta bidezko mugikortasuna izanik oinarri.
- Kaleak oinezkoentzat prestatzeko lanetan aurrera egitea (Trenbide kalea eta Ermodo kalea), eta irisgarritasuna hobetzea (Antso Estegiz).
- Bidegorrien sarea amaitzea, trenbidearen ibilbide zaharra bide berde bihurtzea.
- Bizikletentzako aparkalekuak eta erraztasunak.
- Bizikidetza intermodalaren inguruko prestakuntza eta kontzientziazioa.
- Aparkalekuen plana: egungo TAO sistema berrikustea eta zabaltzea, egungo aparkalekuak optimizatzea 24 orduz zabalik izanik eta aparkalekuen egoerari buruzko informazioa denbora errealean ematen duen sistema bat ezartzea.
- Urki-Hegoalde bidea bukatzea.
- Minibus elektrikoaren sistema bultzatzea eta intermodalitatea indartzea.
- Ibilgailu elektriko eta hibridoetarako zerga-hobariak hobetzea.





Durango, bisitatzeko moduko hiria

Kultura, gastronomia, kirola eta naturari lotutako harrera-turismoko estrategia bat sortuko dugu. Kirol-proben antolaketa eta kirola, natura, gastronomia, kultura eta jasangarritasunari lotutako ekitaldi eta azokak sustatuko ditugu. Kulturako, kiroleko eta aisialdiko **agenda bateratua** garatu eta sustatuko dugu. Durangoko kultura-ondarearen kontserbazioa eta ezaguera bultzatuko ditugu.



- Kulturarekin, gastronomiarekin, kirolarekin eta naturarekin lotutako harrera-turismoko estrategia.
- Durangok eskaintzen dituen baliabideetan oinarrituta turismo-produktu berriak garatzen dituzten enpresei laguntza ematea, baita kulturarekin, gastronomiarekin, kirolarekin eta naturarekin lotutako ekitaldi jendetsuak antolatzen dituztenei ere.
- Kulturako, kiroleko eta aisialdiko agenda bateratua.
- Durangoko kultura-ondarearen kontserbazioa eta ezaguera bultzatuko ditugu.
- Durangoko turismo-sektorearekin (ostalaritza, jatetxeak, garraioa, kultura-ekipamenduak, merkataritza...) baterako lana egitea bezeroarenganako orientazioa eta arreta emateko trebetasunak hobetze aldera.

Durango eta Durangoko alde zaharra

Merkatu-plazaren birmoldaketa integrala bultzatuko dugu, merkataritzaren ardatz dinamizatzailerik eta eskualdeko erakargune bihurtzeko. Plazan hainbat jarduera eta erabilera uztartuko ditugu, etengabeko jarduera eta pertsonen joan-etorria bermatzeko. Merkatu-plaza udalerriko bizitza sozial eta komertzialaren puntu neuralgikoa bihurtuko dugu, eta **Alde Zaharra** Durangoko funtsezko elementu gisa zaindu eta sustatuko dugu.



- Merkatu-plazaren birmoldaketa integrala.
- Hainbat jarduera, erabilera eta zerbitzu osagarri uztartzea.
- Merkatu-plaza eta tokiko merkataritza sustatzeko kanpaina.
- Alde Zaharra indartzea, funtsezko elementu den aldetik.
- Aisialdiaren eta atsedenaren arteko elkarbizitza egokia lortzeko konponbideak bilatzea.

Durango guztiontzat

Durango lagunkoia adinekoentzat, segurua eta irisgarria izatea nahi dugu, eta pertsona guztien aukera-berdintasuna bermatzen duena. Durango irekia, **kulturaniztuna, aberatsa balioetan, tolerantia, solidarioa eta dibertsitatea integratzen duena**. Pertsona guztien bizitza-proiektuak, salbuespenik gabe, garatzeko aukera emango duen Durango. **Elkarteen** lana aintzat hartzen eta errazten duena eta dagokion balioa ematen diona, eta elkarteekiko sareko lana eta lankidetzak indartzen duena.

- “Hiri Lagunkoia Adinekoekin” kontzeptua finkatzea, zahartze aktiboaren eta adinekoen bizi-kalitatea hobetzearen aldeko jarduketak bultzatuta.
- Pertsona guztien aukera-berdintasuna eta inklusioa ahalbidetuko duten planak garatzea.
- Durangar guztien oinarritzako premiak beteko direla ziurtatzea.
- Elkarteekin lankidetzan jardutea eta elkarten lanari balioa ematea.

Durango, harro egoteko modukoa

Hainbat plan sustatuko ditugu euskaraz bizitzeko, gure historia ezagutzeko, gure kultura-ondareari dagokion balioa emateko eta izaera durangarra indartzeko. Mikeldi Saria sustatuko dugu, Durangoren irudia eta bertako balioak hobekien sustatzen dituen pertsona edo erakundeari emango zaion sari gorenari. Harrotasun durangarra sustatuko dugu. **“Durangarra izateaz harro”**.

- Geure nortasun, kultura-ondare eta izaera durangarraren gaineko ezagutza eta balioespina indartzea.
- Euskara kalean, udalaren jarduera publikoan eta hezkuntzaren, lanaren eta kirolaren arloetan erabil dadin sustatzea.
- Mikeldi Saria Durangoren irudia eta bertako balioak hobekien sustatzen dituen pertsona edo erakundeari.
- Durangarra izateagatik harrotasuna sustatzea.





Durango, etorkizuna elkarrekin diseinatzen

2030. urteko Durango eraikitzeko eta diseinatzeko aukera dugu. Eta hori durangarrekin batera egingo dugu. Udal-kudeaketan **herritarren parte-hartzea, gardentasuna eta hurbiltasuna** bultzatuko dugu. **Udal-zerbitzuen karta eta tokiko aktiboen mapa** egingo ditugu, pertsona guztien eskura egongo direnak.

- Udal-kudeaketa irekia, gardena eta gertukoa. Gobernu irekiaren estrategia prestatzea.
- Parte-hartzean oinarritutako udal-aurrekontuak sustatzea, parte-hartzerako berariazko partida ireki bat bideratuta.
- Herritarren parte hartzea proiektu estrategikoetan txertatzea, hala nola Merkatu plazaren birmoldaketa integralean eta beste hainbatetan.
- Udal-zerbitzuen karta eta tokiko aktiboen mapa prestatzea, hartzaile kopuruarengatik eta inpaktuarengatik gakoak diren zerbitzuetatik hasita.
- Udaltzaingoa herritarrekiko hurbilago eta gertukoago egongo den zerbitzua izatea, Durangoko kaleetan presentzia handiagoa izanik patruilak oinez edo bizikletaz eginda.
- HAZI (kalitatezko enplegua), BIZI (elkarbizitza) eta IZAN (etorkizuneko mugikortasuna) aholku-kontseiluak eratzea.



› 5

Durango ABIAN! Honako hauentzat ere...

› 5 Durango ABIAN! Honako hauentzat ere...

lanpostu-bila ari direnentzat

- Enplegu-feria bultzatzea, prestakuntza-eskaintza eta lan-eskaintza enplegu-eskatzailleekin kontaktuan jartze aldera.
- Prestakuntza espezializatua bultzatzea Durangoko prestakuntza-zentroen bitartez, betiere Durangaldeko enpresen premietan oinarrituta.
- Lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituztenak gizarteratzeko eta laneratzeko programak bultzatzea.
- Tokiko enplegu-poltsa sortzea.



gazteentzat

- Gazteentzako etxebizitzaren alokairu sozialeko programak areagotzea.
- Gazteek parte-hartze handiagoa izatea eurei zuzendutako udal-jarduketak zehazteko garaian.
- Aisialdi alternatiborako espazio eta jarduera berriak sortzea: Haurgunea eta Gaztegunea.
- Kirol-instalazioetako ordutegia zabaltzea, baita asteburutan ere, durangarren jarduera fisikoa sustatzeko: Landako kiroldegia, padel pistak, San Faustoko frontoia eta abar.
- Lehendik dauden haur eta gazteentzako aisialdiko guneak hobetzea: San Inazio parkeko jolasgunea birgaitzea, skate parkea (U) eraberritzea eta Landakoko jolasgunea estaltzea.




desgaitasuna dutenentzat

- Bizimodu autonomoa ikasteko etxebizitzak eta/edo tutoretzapeko etxebizitzak sustatzea.
- Lan-aukerak sortzea hainbat kontratu enplegu-zentro berezietarako eta laneratzeko enpresetarako gordeta, eta desgaitasuna duten pertsonak kontratatzeke arau bidezko betebeharrak bete dezaten eskatzea esleipendunei.
- Administrazio-informazioa erraz irakurri eta ulertzeko materialetara, zeinu-hizkuntzara edota brailera egokitzea, pertsona guzti-guztiek, bereizketarik gabe, informazio hori eskuratzeko aukera izan dezaten.
- Sentsibilizazioa eta prestakuntza espezifiko udal-zerbitzuetan eta Durangon kokatutako guztion interesekoak diren beste zerbitzu batzuetan, dibertsitateari erantzun hobea ematearren.
- Minibus elektrikoaren sistema bultzatzea barne-mugikortasuneko faktoretzat, eta pertsona guzti-guztiek, bereizketarik gabe, zerbitzuetarako irisgarritasun unibertsala izatea.



adinekoentzat

- “Hiri Lagunkoia Adinekoekin “ kontzeptua finkatzea, adinekoen bizi-kalitatea hobetzeko ekintza-plan berria bultzatuta.
- Etxez etxeko zerbitzu osagarriak eta babesteko, gainbegiratzeko edo segurtasuneko bitartekoak garatzea, adinekoek etxean egoteko aukera sustatzeko .
- Adinak eragindako premia berrietara egokitutako etxebizitza-programak garatzea, tutoretzapeko apartamentuen edo etxebizitza partekatuen formatuan, instituzionalizazioa saihestuz.
- Adinekoek Durangoko bizitza sozialean eta erakundeetan parte har dezaten berariaz sustatzea.
- Adinekoek zuzendutako aisialdi aktiboko eskaintza nahikoa prestatzea.
- Adinekoek zuzendutako oinarritzko orientazio juridikoko programa sortzea, haien duintasuna eta eskubideak babestearren.



elkarteentzat

- Elkarrekeko harremanak eta elkarriketak jatorrak eta biziak izatea eta elkarrekeko proiektuak eta dinamizazio-ekintzak bultzatzea, bai sektore-mailan, bai auzoetan.
- Elkarre-sarearentzat espazio fisiko berriak sustatzea, baliabide eta espazioak modu eraginkoragoan baliatu ahal izateko.
- Elkarrekeko arteko koordinazioa indartzea, elkar ezagutzea, komunikazioa eta elkarrekeko elkarlanean egindako jarduerak sustatzeko.
- Diru-laguntzak emateko eta hitzarmenak harpidetzeko oinarritzko irizpide argiak ezartzea, elkarreke guztientzat irekiak.
- Udal-agenda koordinatua bultzatzea, herriko kulturaren, gizartearen, kirolaren, merkataritzaren eta ekonomiaren arloetako agendetako ekitaldiak biltzeko.

ekintzaileentzat

- Informazio, aholkularitza eta prestakuntzarako zerbitzu bat sortzea, ekintzaileentzat eta enpresa berrien ezarpena errazteko.
- Durangalderako enpresa-inkubazioko zentro bat bultzatzea.
- Udal-lizentzia eta udal-tasetako hobariak aztertzea, Durangon jardura ekonomiko berriak indartzeko.
- 0 kilometroko erosketa sustatzea; horretarako, enpresa, produktu eta zerbitzuen katalogoa prestatu behar da, Durangoko eta Durangaldeko enpresen artean erosketa gurutzatuak eta lankidetzak sustatuko duena, baita tokiko administrazioarekin ere.



merkatarientzat

- Tokiko merkataritza eta Durango marka sustatzea.
- Landako Erakustazokan egiten diren jardueren eta udalerriko merkataritzaren arteko osagarritasuna bultzatzea, elkar indartzearen.
- Sektorearekin eta sektoreko elkarteekin harremanak eta elkarriketak jatorrak eta biziak izatea, eta haien dinamizazio-proiektuak bultzatzea sektorean eta auzoetan.
- Merkatu-plazaren birmoldaketa integrala bultzatuko dugu, merkataritzaren ardatz dinamizatzaile eta eskualdeko erakargune bihurtzeko.
- TAO ordenantza egokitzea, eta txandakatze handiko guneak edo dendetako zabalantarako balio duten beste aukera batzuk aztertzea.
- Udal-agenda koordinatua bultzatzea, herriko kulturaren, gizartearen, kirolaren, merkataritzaren eta ekonomiaren arloetako agendetako ekitaldiak biltzeko.

berdintasunerako

- Andragunea indartzea, Durangoko gizartearen eta kulturaren arloetako bizitza dinamizatze tresna den aldetik, betiere genero-zeharkakotasuna biltzen duten jardueren bitartez (genero mainstreaming-a).
- Indarkeria matxistaren aurkako herritarren ituna zabaltzeko eta jarduera zehatzetan gauzatzeko lan-mahaia sortzea.
- Egoera ahulean dauden emakumeak ahalduztzeko programa indartzea, orientazioa eta aholkularitza eskainita.
- Udal-kontratazioan klausula sozialak ezartzea, enpresa esleipendunek berdintasun-planak eta berdintasun-irizpideak izan ditzaten euren gobernu-organoetan.



bizimodu aktiboa eta osasungarria izateko

- Kirola sustatzea, pertsona guztientzat, adin guztietan.
- Herriko kirol mota guztietako elkarte eta klubei laguntza, aitortza eta lankidetzak eskaintzea, beren lana garatzeko beharrezkoak dituzten baliabideak eskuratzea eta baldintzak betetzea ahalbidetzeko.
- Ikastetxeekin koordinatzea eta akordioa sinatzea ikastetxeetako kirol- ekipamenduak Durango Kirolak elkarteak kudeatutako instalazioen sarean sar daitezen, betiere eskola-orduz kanpo.
- Dauden azpiegituretan mantentze-lanak eta hobekuntzak egitea.

gobernu irekirako

Kontuak ematea:

- Legegintzaldiaren lehen 6 hilabeteetan 2019-2023 aldirako Gobernu Plana egitea, udal-kudeaketaren eremu bakoitzeko helburuak biltzeko.
- Gobernu-plana bete ote den aztertze ebaluazioa egitea urtean behin eta amaieran.
- Plana eta ebaluazioak alkateak durangarrei zuzenean eta udaletxean aurkeztea.

Gardentasuna:

- Publizitate aktiboaren web atari berria sortzea, udal-jardueraren gardentasuna bermatzeko.
- Plan eta ebaluazio guztiak –partzialak eta amaierakoak– argitaratzea.
- Hautetsien eta izendapen-kargudunen ondasunen eta jardueren deklarazioak argitaratzea.

Parte-hartzea:

- Parte-hartzean oinarritutako udal-aurrekontuak sustatzea, parte-hartzerako berariazko partida ireki bat bideratuta.
- Durango Auzoz-auzo plana abiaraztea, hau da, auzo bakoitzeko herritarren inplikazio eta parte-hartzearekin hobekuntza-plan bat egiteko programa, betiere parte-hartzean oinarrituta.
- Herritarren parte hartzea proiektu estrategikoetan txertatzea, hala nola Merkatu plazaren birmoldaketa integralean eta beste hainbatetan.
- Durangarrak eta gobernu-taldea elkarrekin zuzenean komunikatzeko bideak ezartzea.
- HAZI (kalitatezko enplegua), BIZI (elkarbizitza) eta IZAN (etorkizuneko mugikortasuna) aholku-kontseiluak eratzea.

› 6 Durangoren zerbitzura dagoen taldea

EAJ-PNVk 2030eko Durango gidatzeko giza kapitalik onena aurkezten du.

Talde gazte bat aurkezten dugu, nagusiki emakumez osatua, ilusioa, kudeaketa-gaitasuna eta Durangorekiko eta durangarrekiko konpromisoa uztartzen dituen. Diziplina anitzeko taldea da, hainbat eremutan kudeaketa-esperientzia zabala duena, eta zuzenbidean, ekonomian, hirigintzan, ingeniartzan, turismoan, hezkuntzan edo komunikazioan, besteak beste, ibilbide kontrastatua duten profesionalen taldea.

Durangarrek esaten dutena entzuten duen eta haien zerbitzura jartzen den taldea, unean uneko beharrianetarako erantzunik onenak eman ahal izateko. Talde honek badaki ibilbide honetan aliatu onena durangarrak beraiek direla, hain zuzen ere jadanik beraiekin beharrezko aliantzak gauzatzen ari baita pertsona guztien bizi-kalitatea hobetzeko helburu komunean aurrerantz egiteko, konpromiso zintzoa, erantzukizuna eta hurbiltasuna oinarri izanik.

› 6 Durangoren zerbitzura dagoen taldea



1
MIREIA
Elkoriribe
Zenikaonandia



2
SARA
Oceja
Salazar



3
AGER
Sardui
Azkoaga



4
JOSUNE
Eskota
Bisbal



5
JON
Sergio
Atxotegi



6
JOANA
de Irala
Bizkarra



7
MALEN
Urkullu
Arieta-Araunabeña



8
AINHOA
Ortueta
Etxebarria



9
ANDONI
Iruarizaga
Amantegi



10
MIKEL
Ortega
Marañon



11
IZARNE
Larrakoetxea
Altzaga



12
PAULE
Sanchez
Arieta-Araunabeña



13
ERNESTO
Lauzirika
Garate



14
SERGIO
Murillo
Corzo



15
JULENE
Zamalloa
Fuentes



16
AINHOA
Alustiza
Kapanaga




17
JABIER
Legorburu
Arieta-Araunabeña



18
LIDE
Etxeandia
Gerediaga



19
JON KEPA
Garro
Mendiolaagari



20
IKER
Oceja
Sobrón



21
IZASHUN
Urien
Azpitarte



22
BIENVENIDA
Diaz
Felipe



23
ANDER
Gorrotxategi
Legarra



24
ISABEL
Kapanaga
Ruiz de Loizaga

prest!



NOS MUEVE **DURANGO** BAT EGINIK

Elecciones municipales
Programa de legislatura
2019-2023

MIREIA ELKOROIRIBE ZENIKAONANDIA
CANDIDATA A LA ALCALDÍA DE DURANGO



EMAN BOTOA / VOTA



ej
pnv

ÍNDICE

1. El resultado de un proceso	4
2. Nuestros activos	6
3. Durango ABIAN!	10
hAzi	12
Blzi	13
izAN	14
4. Nuestros compromisos	16
Durango líder, en Durangaldea, Bizkaia y Euskadi!	17
Durango 2030, nuestro proyecto de futuro	17
Durango, ideal para vivir	18
Durango hoy y mañana	18
Durango a pie y en bicicleta	19
Durango una villa para visitar	20
Durango y su casco viejo	20
Durango para todas las personas	21
Durango motivo de orgullo	21
Durango diseñando el futuro juntos.....	22
5. Durango ABIAN! también... ..	24
para las personas que buscan empleo	25
para las personas jóvenes	25
para las personas con discapacidad	26
para las personas mayores	26
para las asociaciones	27
para quien emprende	27
para el comercio	28
para la igualdad	28
para la vida activa y saludable	29
para el gobierno abierto	29
6. Un equipo al servicio de Durango	30

h 2 0 3 0
A B I A N!
z i z D U R
i z a A N G
i n O !



EMAN BOTOA / VOTA



f mireia.elkoroiribe
@ mireiaelkoroiribe
in mireia-elkoroiribe
EAJ-PNV.EUS



› 1 El resultado de un proceso

Tienes en tus manos el reflejo de muchos meses de trabajo: incontables horas de reuniones, de reflexión, de debate, de intercambio de ideas, de encuentros, de correos electrónicos, de llamadas, de mensajes de whatsapp, de conversaciones, de cartas, de propuestas, de respuestas, de documentos compartidos. Y, sobre todo, meses de mucha ilusión.

Ilusión, la de las 120 personas comprometidas en el proceso DURANGO HELBURU. Ilusión, la que me habéis transmitido en casi un centenar de encuentros con asociaciones y entidades de Durango. Ilusión, la que me habéis mostrado al acercaros los viernes en los barrios, o cualquier otro día, cuando paseaba o acudía a vuestros comercios... Y especial ilusión, también, la que me habéis provocado al haber dedicado parte de vuestro tiempo a pensar en Durango, respondiendo a mi carta, en la confianza de que vuestro deseo estará a buen recaudo.

